

Ekonomia Itunari eta Foru Ogasunei buruzko MAL eta GRAL onenarentzako II.

Ituna Saria

Oinarri orokorrak

Deialdia egin duten entitateak

- Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegia (UPV/EHU).
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (UPV/EHU).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saila.

Deialdiaren xedea

Ekonomia Itunari eta Foru Ogasunei buruzko ikerketa sustatzea eta bultzatzea unibertsitatearen esparruan. Lanek edozein ikuspegi edo diziplinatatik heldu ahalko diote gaiari: fiskalitatea, historia, soziologia, zuzenbidea, ekonomia, didaktika, etab. Edozein fakultate eta diziplinatako ikasleek jaso dezakete saria.

Baldintzak

I. Ituna Saria jaso ahal izango dute UPV/EHUn edo Euskadiko eta Espainiako goimailako edo ikerketa ofizialeko beste edozein ikasketa zentrotan 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (biak barne) defendatu eta kalifikatutako MALEk eta GRALek, baldin eta gutxienez 8ko kalifikazioa lortu badute, originalak badira eta Sari honen xede diren gaiekin zerikusia badute. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez egindako lanak onartuko dira.

Saria

Saria bi kategoriatan banatzen da: Master Amaierako Lan onenaren kategoria (MAL) eta Gradu Amaierako Lan onenaren kategoria (GRAL).

- Lehenengo kategorian, MAL onenaren saria 600 eurokoa da, eta Ituna diploma bat.
- Bigarren kategorian, GRAL onenaren saria 300 eurokoa da, eta Itunaren diploma bat.

Bi kategorietan, sariduna mintegi akademiko batera deituko da, bertan bere proiektua eta ikerketaren emaitzak aurkeztu ditzan. Proiektua mintegi publikoan aurkeztea ezinbesteko baldintza da saria jasotzeko.

Halaber, *Ad Concordiam*, Ekonomia Ituna hedatzeko eta sustatzeko erakundearen (<https://conciertoeconomico.org/>) lankidetzari esker, saritutako lanek elkartearen "Ikerketa-Bilduman" argitaratzeko aukera izango dute.

Aurkezteko epea

Lanak aurkezteko epea deialdi hau argitaratzen den unetik hasiko da eta 2023ko martxoaren 15ean (barne) bukatuko da. Ezarritako epeetik kanpo ezingo da lanik aurkeztu.

Aurkezteko prozedura

Lan bat sarira aurkezteko, honako dokumentazio hau bidali behar da ituna@ehu.eus helbidera.

- MAL edo GRALren kopia bat PDF formatuan, autorearen izen-deiturak kenduz eta egileari buruzko aipamenik egin gabe.
- Ziurtagiri edo egiaztagiri bat, MAL edo GRAL 2022eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean defendatu eta kalifikatu dela eta gutxienez 8ko kalifikazioa lortu duela egiaztatzen duena (adibidez, espediente akademikoa edo ikasketa zentruak emandako ziurtagiria).
- Egilearen NANaren kopia bat. NANarekin batera, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa adierazten dituen dokumentua erantsiko da.

Epaimahaia eta ebaluazio irizpideak

Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen arloko hiru adituk osatuko dute epaimahaia. Ebaluazio irizpideak lanaren kalitatea, originaltasuna eta ezagutzaren, zientziaren eta gizartearen aurrerapena sustatzeko duen balioa dira. Ez dira baloratuko epaimahaiak oinarri hauetako arauekin bat ez datozen lanak edo sari honen xede diren gaiekin zerikusirik ez dutenak.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta saria eman gabe utz daiteke, baldin eta aurkezten diren lanek kalitate eta originaltasun irizpideak edo behar diren baldintzak betetzen ez badituzte. Saria *ex aequo* eman ahalko da, diru saria proportzionalki banatuz, eta irabazi ez duten beste lan batzuen merezimendua onartzen duten accesitak eman ahalko dira. Epaimahaiak oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein gai ebatziko du.

Ebazpena

Sariaren ebazpena zuzenean jakinaraziko zaie bi kategorietako sarituei, emandako harremanetarako kontaktuaren bidez. Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiaren web orrian (www.ituna.eus) eta Twitter-an (@ituna.concierto) ere argitaratuko da. Saridunaren erantzun falta edo ez agertzeak, sariduna baztertzea ekarriko du, eta epaimahaiaren esku geratuko da saria beste lan bati ematea.

Sustapena eta hedapena

Deialdi honetan parte hartzeak berarekin dakar Ekonomia Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiari baimena ematea bi kategorietako sarituen izenak, titulua eta proiektuaren laburpena argitaratzeko, eta entrega-ekitaldiko argazkiak argitaratzeko. Irudiak edozein komunikabidetan zabaldu ahal izango dira (telebista, prentsa, internet, kanpoko bitartekoak...). Banaketa dohain baino ez da izango konpentsaziorik, ordainketarik edota kalte-ordainik eskatuko adostutako baimenaren truke.

Datu pertsonalak babesteko politika

UPV/EHUK datuen babesaren arloan daukan politikari buruzko informazio osoa lotura honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/babestu>. Gune horretan dago jasota, besteak beste: UPV/EHUK egiten dituen tratamendu jardueren zerrenda eguneratua; tratamendurako lege oinarriak; tratamenduaren jarduera bakoitzak izan ditzakeen hartzailak; zure datuen inguruan dituzun eskubideak eta eskubide horiek egikaritzeko eskari orriak.

Harremanetarako informazioa

Deialdiaren oinarriari buruz galderarik edo argibiderik behar izanez gero, jarri harremanetan ituna@ehu.eus -ekin.

Batzorde antolatzailea

Mikel Erkoreka González

Jon Garro Albaina

Andoni Montes Nebreda

Xabier Murua Imaz

Eduardo Alonso Olea

Joseba Agirreazkuenaga